

B maila. DBHko 1. eta 2. mailetako ikasleak.

Parte-hartzailea	Ikastetxea	Izenburua
Garazi Astiz Aranburu	Andra Mari	<i>Suerte txarrekoa naiz</i>
Maitane Ondarra Larrea	Andra Mari	<i>Egun txarra</i>
Iñaki Hernandez Uzkudun	Andra Mari	<i>A ze asteburua</i>
Iratxe Reparaz Beaskoetxea	Andra Mari	<i>Altxorraren bila</i>
Oier Luis Lizarraga	Andra Mari	<i>Azterketa</i>
Maider Mendinueta Telletxea	Andra Mari	<i>Beriainera bidaia</i>
Joanes Mendinueta Jaka	Andra Mari	<i>Egun izugarria</i>
Joanes Satrustegi Olasagarre	Andra Mari	<i>Elurra</i>
Unai Lopez	Andra Mari	<i>Festak</i>
Alain Ansotegi Jaka	Andra Mari	<i>Final izugarria</i>
Lur Balda Intxaurreaga	Andra Mari	<i>Futbol partida</i>
Amaia Razkin Medrano	Andra Mari	<i>Futbol saioa</i>
Ane Alonso Luis	Andra Mari	<i>A ze suerte txarra!</i>
Adriana Lakuntza Araña	Andra Mari	<i>Hau bai zorte txarra!!!</i>
Eguzki Lopetegi Ortega	Andra Mari	<i>Nire etxeko zozketan...</i>
Ainara Goikoetxea Perez	Andra Mari	<i>Kanpotik nioala</i>
Maider Arenaza Oreja	Andra Mari	<i>Klasea bukatuta zinera</i>
Joannes Bengoetxea Aldaz	Andra Mari	<i>Loteria</i>
Oihan Artieda Olkoz	Andra Mari	<i>Txirrindula</i>
Oihane Mayo Ijurra	Andra Mari	<i>Gerra izugarria</i>
Ainhoa Razkin Medrano	Andra Mari	<i>Ni eta azterketak</i>
Manex Insausti Olasagarre	Andra Mari	<i>Sakanan aireportua</i>
Iraitz Berastegi Razkin	Andra Mari	<i>Zorte txarra</i>

Oier Huizi Saez de Albeniz	Andra Mari	<i>Euskalheritarrok gaude atxilotuta</i>
Adur Lasa Unciti	Andra Mari	<i>Zoritxarra</i>
Koldo Murgiondo Mundiñano	Andra Mari	<i>Gaixorik dagoen mutikoa</i>
Iker Etxeberria Ijorra	Andra Mari	<i>Oporrak eskiatzen</i>
Maidar Gabirondo Zelaia	Andra Mari	<i>Egun txarra</i>
Oihane Kintana Igoa	Andra Mari	<i>Haur hegalaria</i>
Jon Igoa	Andra Mari	<i>Ohean nago ni</i>
Iñigo Arratibel Karasatorre	Andra Mari	<i>Asteburua iritsi da, zer egingo dut?</i>
Sabine Arakama Goikoetxea	Andra Mari	<i>Animali berri bat</i>
Nahia Urkia Ihabar	Andra Mari	<i>Kantak</i>
Oihan Larraza Razkin	Andra Mari	<i>Asteburuan zer?</i>
Ander Gabirondo Vazquez	Andra Mari	<i>Eskiatzera joan</i>
Ariane Insausti Amiano	Andra Mari	<i>Asteburua...</i>
Oihan Razkin Azpiroz	Andra Mari	<i>Ezinezkoak</i>
Kattalin Armendaritz	Andra Mari	<i>Zoritzarreko eguna</i>
Josseline Catillo Fuentes	Andra Mari	<i>Nire Ametsa</i>
Udane Agirre Jaka	Andra Mari	<i>Zoritxarra</i>
Kimetz Garde	Andra Mari	<i>Eskiatzera joan naiz</i>
Irati Pellejero	Andra Mari	<i>Azterketak iritsi dira ta</i>



Suerte txarrekoa naiz

Doinua: *Hamalau heriotzarena*

Gaur ez naiz hasi
Ni zorte handiko
Iratzargailua dut
Hondatu betiko
Unerik onenean
Jo du kokoriko
Ohetik erori naiz
Sustoaz ni ziplo
Ametsik goxoena
Zapuztu dit kitto.

Zalaparta entzunda
Ama etorri da
Gaitera entzun behar
Haren purrustada
Gosaltzera jeitsi naiz
Falta dut patxada
Xigortzen jarri ditut
Pare bat tostada
Eta atera zaizkit
Ikatza bezala

Bate(re) gosaldu gabe
Irten naiz presaka
Autobusa galtzea
Litzateke marka
Orain glasean nago
Heldu naiz kostata
Andereñok esan dit
Aterazu mapa
Etxean ahaztu zait
Ta jarri dit falta.

Garazi Astiz Aranburu

[Aurkibidea](#)



www.altsasukokima.com

Egun txarra

Doinua: *14 heriotzak*

Gaur goizean jaiki naiz
suerte txarrean
berandu nabil eta
esnea jertsean
bota egin zaidala
autobusa bean
jetsi naizenerako
joan da ihesean
aitak bronka bota dit
klasera bidean

Klasera iritsita
kriston erregela
bi begien aurrean
jotzeko bezala
azterketan suspenso
memoria ustela
bokata ez dut eta
izan naiz ergela
eta etxera itzultzeko
giltzik ez nuela

Maitane Ondarra Larrea

[Aurkibidea](#)

A ze asteburua

Doinua: *Rantxera*

Asteburua dator
plana itxaropena
poltsikuan dirua
gastatzeko dena
tabernara joan gara
hori bai krimena
poltsikoa ikusi
ta sartu zait pena

Gau osoa egon naiz
dirua gastatzen
kalimotxoa hartuta
hasi naiz ordaintzen
dena ordaindu ondoren
joan naiz bide hartzen
niri ama ikustean
hasi zait epaitzen

Iñaki Hernandez Uzkudun

[Aurkibidea](#)

Altxorraren bila

Doinua: *Bizkaiko txerria*

Jardinera atera
altxor baten bila
gehienez aurkitu dut
kotxeko gurpila.
Baino azkenerako
zegon urre pila.
Oporretara joan
ta jan dut pastila,
bestela abioiean
nabai det mandrila.

Igota negoela
hasi da krimena.
Lapur gaizko batzuek
tirokatu dena.
Nire dirua hartu
ez dute kemena,
zortea jun egin zait
hau bai dela pena.
Ezin dut geio galdu
Nik itxaroena

Iratxe Reparaz Beaskoetxea

[Aurkibidea](#)



www.altsasukokima.com

Azterketa

Doinua: *14 heriotzenak*

Goizean esnatu naiz
ikasi gizarte
etxetik atera naiz
azterketa arte
urduri egongo naiz
ta gaizki aparte
txuleta atera dut
ta esan didate
zer ari zara horrekin
ta arrapatu naute

Ikastolara joan
exeri egin naiz
jolasten hasi gara
arkatz eta guraiz
gautik aurrera beti
ikasi behar naiz
amari esan eta
zu zertan ari haiz
niri amak zigortu
ta joan egin naiz

Oier Luis Lizarraga

[Aurkibidea](#)



www.altsasukokima.com

Beriainera bidaia

Doinua: *Mando baten gainean*

Etxetik aterata
hamar bat bagara
indartsu eta pozik
hasi dugu bada
bidean zenbat lore
erori zait baba
ze aldapa handia
daukaguna jada!
erabat nekaturik
gaur iritsi gara

Tontorrean gaudela
A ze eksklusiba
Berian lehen aldiz
Zapaldu dut biba!
Iritsiko ote nintzen
Ba nuen intriga
Mendi polit honetan
Elurra ari da
San Donato maitia
Hartu despedida

Elur txuri honekin
gu gozatzen gaude
hemen gauden guztiak
gabiltza umore
malutak botatzeko
bada habilidade
hartzeko ez naiz ona
botatzeko trebe
orain Arbizun gaude
gauixo hainbat kide

Maider Mendinueta Telletxea

[Aurkibidea](#)



www.altsasukokima.com

Egun izugarria

Doinua: *rantxera*

Seietan jaiki eta
Banoa ehizara
Bi basurde ikusi
Hori pasaera
Zortziak dira eta
Banoa estera
Lagunengana noa
Kalean jolastera.

Hamarretan jaiki eta
Banoa kalera
Lagunekin topatu
Guozen frontoiera
Iritsi garenean
Hasi futbolera
Irabizi egin nun
Ta joan etxera .

Joanes Mendinueta Jaka

[Aurkibidea](#)

Elurra

Doinua: *Frantses Euskaldun bat*

Elurra ari du a ze poza
Oraintxe noa kalera
Ataritxoa zabaldu dut eta
Buruari nik galdera
Nondik etorri ote zait niri
Hainbat maluta batera
Gorri-gorri eginda bota naiz
Mareatuta lurrera

Berriro ere txamarra hartuta
Banoa oraintxe etxetik
Lera eskutan hartu dut eta
Lasterka noa poz-pozik
Igo naiz mantso jaitsi azkarregi
Ez zait falta arazorik
Hanka hautsi dut eta banoa
Negarrez maki hemendik

Joanes Satrustegi Olasagarre

[Aurkibidea](#)

Festak

Asteburu honetan
Egingo dut goza
Festak izango dira
Arropa arrosa
Kohetea botata
Jarri naiz mimosa
Jendetza etorrira
Nik dut kriston poza

Plazan gu egon gara
ta egin dugu plana
kioskoraino joaten
jotzen palangana
gaua iritsita
ez dut egin lana
abesten negoela
hartu dut nik fama

Unai Lopez

[Aurkibidea](#)

Final izugarria

Doinua: *Bizkaiko txerria*

Astlehena bai da
Hau bai dela aria
Partidoa igandean
Ta nik lantegian
Ni pentsatzen ari naiz
Ze egun handia
Olibi haserre jarri
Lanenan hasia
Eta neri esan dit
Hori aurpegia!!!!

Jeiki naiz ohetik ta
Begian malkarra
Partidora abiatu
Ahoan sagarra
Partidoa nik galdu
Begian negarra
Jendeak bi gauza esan
Jantzita ,makarra
Jokatu baitut gaur nik
partido oso txarra

Alain Ansotegi Jaka

[Aurkibidea](#)

Futbol partidua

Doinua: *Bizkaiko txerriarenak.*

Partidua ez da hasi
oraindik inola
eta orain ni nago
bezala farola
atzazkalak hozkatu
ez naiz ez txotxola!
Behatza orain daukat
odola dariola
ta horrek esan nahi du,
urduri nagola!

Nafarroako ligan
hasi gala aurten
hainbat txoropito ta
hainbat astakirten
partidua hasi da ta
gabilitza jolasten
eta egin dugu guk
makina bat lorpen
bat eta huts gaudela
gu bai irabazten!

Azkenean bi ta bat
irabazi genuen
huraxe bai giroa
zegola demagun
partidua bukatu
zegen hainbat lagun
garaipena gozatu
ta ospa dezagun
orain bertan gu gara
ligako txapeldun!

Lur Balda Intxaurrega

[Aurkibidea](#)



www.altsasukokima.com

Futbol saioa

doinua: *rantxera*

Mezatic aterata
Aspertuta nago
Plazara ni banoa
Han balona dago
Jolasten hasi naiz ta
Egon naiz luzaro
Nik arropa berria
Puskatu dut gero

Arean ni nagola
Ez dago atezainik
Ze zorte ona dudan
Ez dut galduko nik
Urduri jarri naiz ta
Ezin jo_ostikorik
Ta gola sartu gabe
Saioa galdurik

Amaia Razkin Medrano

[Aurkibidea](#)

A ze suerte txarra!

Doinua: *Rantxera*

Ikastolan nagola
haitzen da marmarra
etxera bidali nau.
Andereño zaharra!
Bidean nengoela
hartu dut kaxkarra
sudurra_hautsi dut eta
hauxe de plan txarra

Ospitalean nago
sudurra iluna
eskaiola jarri dit.
Mediku txukuna!
Frankestein nabari dut
hau da_ ezintasuna
jendeak esaten dit
naizela tuntuna

Ane Alonso Luis

[Aurkibidea](#)

Hau bai zorte txarra!!!

Doinua: *Bizkaiko txerria*

Ohetik nola jaiki
botatzen lurrera,
kristoren sustoa ta,
hori bai sarrera.
Erdi lo nago oraindik,
da nire joera
aztapatu naizela
eskaileran behera
zer gertatuko eta
esnea gainera.

Autobusa ihesi
ikusi dut nik bai.
Berandu nabil eta,
gaur ez da inon jai.
Txitxarrak jo duela,
ni ez nago lasai.
Etxera bueltatu naiz,
hau zorte txarra ai!!
baina gelditu naiz ni
zigorturik bai-bai.

Adriana Lakuntza Araña

[Aurkibidea](#)



www.altsasukokima.com

Nire etxeko zozketan . . .

Doinua: *14 heriotzena*

Nire etxeko zozketan
Zuk esan zenidan
Zuk ez duzu pentsatzen
Ezertxo ere nigan
Eta nik esan nizun
Zuk eztaere gugan
Nire izena paperan
Agertzen zen dendan
Erosketa egitera
tokatu zitzaidan

Kalera joateko
eskatu dut lehen
ta berak esan zidan
ni ez nago hemen
paretan jarri nuen
ni nago erosten
baina nire kartera
gelan utzi nuen
orain zer egingo dut
ez dakit non zauden

Eguzki Lopetegi Ortega

[Aurkibidea](#)

Kanpotik nioala

Doinua: *Kaxianoren San Antonio*

Kanpotik nioala
nire txakurrarekin
putzutara erori ta
zorte txarrarekin
jarraitu dut bidea
zori txarrarekin
etxera bueltatu naiz
dena zikin-zikin.

Oztopatu egin naiz
kanpotik nioala
prakak hautsi ta amak
esandit: "hago hola"!
amari esan diot
izan da farola
oporrarik ez ditut
etxean nagola.

Ainara Goikoetxea Perez

[Aurkibidea](#)

Klasea bukatuta zinera

Doinua: *Bizkaiko txerriarena*

Ni nago txirrinari
Itxoiten klasean
pentsatzen zer egingo
asteburu hontan
etxera bagaoz
ardua- azkenean
ta ama ikusi dut
sartuta kotxean
Irunera goazela
Sorpresara eman nahian

Jada emen gaude ta
Irun barrenean
ALVIN Y LAS ARDILAS
Ikusten zinean
Palomitak hartuta
Sala-eder batean
Ordu bat barru geunden
Zinean sarreran
Gustora asa dugu
Zinera joatean

Maider Arenaza Oreja

[Aurkibidea](#)

Loteria

Doinua: *rantxera*

Egukaria hartu
Ta hau bri ona
Loteria tokatu
Ta deitu amona
Gertatutakoa esan
Ta jantzi du gona
Erosten ari dela
Kriston saltxitxona

Dezimoa hartu dut
Ta hasi naiz hegan
Dirua kobratuta
Pentsatzen amagan
Arroa ona hartzeko
Sartu naiz ganbaran
Dirua gastatu dut
Amarekin dendan

Joannes Bengoetxea Aldaz

[Aurkibidea](#)

Txirrundula

Doinua: ranchera

Txirrundua prestatzen
Nago badazpada
Eman beharko diot
Kristoren pasada
xaboia eman ondoren
bota diot ura
txirrundula prestatzez
bukatu dut jada.

Lagunekin elkartu
Eman dugu jira
Menditik pasatzean
sortzen zait intriga
artza_aterako zaigu
utzi hori tira!
Ta ingandero gozatzen
Dugu ikusmira.

Oihan Artieda Olkoz

[Aurkibidea](#)



www.altsasukokima.com

Gerra izugarria

Doinua: *Txuriko*

Albiste izugarri
Ta bihotz gabea
Eta gelditu naiz ni
Galdurik ordea
Gerretan armek beti
Dute boterea
Jende asko hiltzen da
Ta errugabea.

Ume asko egiten
dituzte baiitu
etxera ekartzeko
behar da ordaindu
baina guk ezezkoan
nahi dugu jarraitu
zorigaiztoko gerrak
hasiera emen du.

Jendea hiltzen dute
Interesagatik
Odola nahi dutela
Handik ta emendik
Ezin gara atera
Sufrimendu horatik
Amerikarrak doaz
petrolioarengatik

Oihane Mayo Ijurra

[Aurkibidea](#)



www.altsasukokima.com

Ni eta azterketak

Doinua: *Frantzes euskaldun bat*

Asteburua bukatu eta
Etorri ikastetxera
Eta gaitera nik azterketa
Banoa hau egitera
Azterketa mahai gainean daukat
Asko ikasi euskara
Oso urduri jarri naizela
Ihes egin nahi_etxera

Ni gelatik oso azkar atera
Azterketa utzi mahaian
Pasilotik ni nabil korrikan
Andereinoa_atzean
Tutoreak arrapatu eta
Zuzendarira eraman
Ni kartarekin noa estera
Sartu naiz iskanbilletan

Ainhoa Razkin Medrano

[Aurkibidea](#)



www.altsasukokima.com

Sakanan aireportua

Egunkaria ikusi
ia hil naiz sustoz
ura hartu ondoren
dena bakar tragoz
berriro irakurtzen
ta hasi naiz bertsoz
gu berriz txarto baina
badabiltza gogoz
hemen aireportua
egiteko asmoz

Nik gutun bat bidali
idatzi apalki
ohartu daitezela
dabiltzala gaizki
hau ez da demokrazia
herria erabaki
Sakana suntsituta
ez al dute aski
Nafar Gobernurako
obrak bai noski

Obrak egiten hasi
hauek dena betez
obrero hauek denak
daude lanez gainez
larre hoietan denetan
bete hormigonez
koktel molotofak ta
dena bete suez
Unenuko larretan
aireporturik ez

Manex Insausti Olasagarre

[Aurkibidea](#)



www.altsasukokima.com

Zorte txarra

Doinua: *Bizkaiko txerriarena*

Ohetik jeiki naiz
Zortzi terdietan
Kotxean berela
Lagunan etxean
Iruñean gaude
Eskalada dendan
Materiala erosi
Urbasa bidean
Azkar iritsi gara
Gaude kanpinean

Eskalatzen hasi naiz
Ur saltu batetik
Pixkanaka nago igotzen
Nago zero pik
Izoztuta ez dagon
Harroka handitik
Oso zaila baitagon
Pasarte hontatik
Sokak failatu duta
Ni berriz lurretik

Jaso nahian ni nago
Azpian elurra
Basurde bat bezala
Ahoan ezkurra
Nire muturra odolez
Hotza ia makurra
Izugarrizko mina
Hozkatu egurra
Eskua hautsita daukat
ai nire hezurra

Iraitz Berastegi Razkin

[Aurkibidea](#)



www.altsasukokima.com

Euskalherriarrok gaude atxilotuta

Egunkaria hartu
ta ze nahigabea
azalean zegoen
Madrilgo kondea
Zarzuelan sartu da
jarri zait barea
Zapatero kendu ta
hor dago bordea
kongresuan sartuta
Espainia berea.

Iruñaldetik datoz
zivil ta polizi
egingo digutela
aski irabazi
amore eman gabe
kontra jartzen hasi
jende asko hilko da
baina ere hazi
guk nahi baitugu hemen
oso pozik bizi.

Hiru egun ondoren
goaz atzeraka
guk egiten baitugu
den-dena banaka
eta bat hiltzen bada
galtzen gutxinaka
Sakana osoa hartu
dute pixkanaka
ta euskalerritarrok
gaude atxilotuta.

Oier Huizi Saez de Albeniz

[Aurkibidea](#)



www.altsasukokima.com

Zoritxarra

Kalean nagoela
Saltoak egiten
Besoak arin arin
Hari naiz mugitzen
Bideberrian dago
Txakur bat pasatzen
Ni haruntz urbiltzen
Pozez zoratzen
Kaka dut zapatzen
Usaia da hasten
Etxeko atean ni
Ari naiz sufritzen

Etxean sartu ondoren
Buru ez ahusterik
Ama sukaldean dago
Zapatak ikusi eta
Ezin garbitzerik
Tarta jateko ere
Eta ez muxurik
Ez dut merezirik
Ordenadorerik
Eta ez kalerik
Sermona eman ondoren ez telebistarik

Adur Lasa Unciti

[Aurkibidea](#)



www.altsasukokima.com

Gaixorik dagoen mutikoa

Doinua: *Lagundurikan danoi*

Etxeko denak daude
ni sendatzeko zain
horretarako nago
jaten mila arrain
goizean etorri da
nire lagun Ekain
ezdago inor hemen
ta gaua da bikain
bakarrik nagoela
nabaridu orain

Nire gela honetan
ezdago ez argi
etxea beharrean
kartzela dirudi
herrialde osoa
dago nitaz adi
gehiena batez ere
nire lagun Maddi
ohe barruan nago
hilabete terdi

Etxean nagoela
oso aspertuta
aspertuaz gainera
nago nazkatua
tareak egiteaz
nago nekatuta
ohean sartu eta
dauzkat hiru manta
hiru hilabete nago
ohean sartuta

Koldo Murgiondo Mundiñano

[Aurkibidea](#)



www.altsasukokima.com

Oporrak Eskiatzen

Txokapic asko eta esnea
Joan naiz ni gosaltzera
Maleta eskuan dugularik
Gero etxetik atera
Bertan orduak pasatu ditut
Gu goaz autobusera
Eta ni nago pozik saltoka
Iritsi gara mendira

Etxe bat alokatzeko
Gu gaude pirineotan
Mendi gailurrera igotzea
Goazen teleskietan
Aldapan bera gu jaisteko prest
Gu denok gaude mendian
Nago ni oso apuratuta
Eskiatzeko beldurran

Gainera gaude pista handian
Ni nago oso nagia
Gu beldurra kentzen ari gara
Eta hasi du euria
Mendiaren gailurrera igo
Ta eskiatzen hasia
Baita nahi nuen goraka igo
Guk jaitsi dugun mendia

Iker Etxeberria Ijurra

[Aurkibidea](#)



www.altsasukokima.com

Egun txarra

Doinua: *Potajiarenak*

Goizean esnatu naiz
korrika bizian
Eta eskola bidean
trabatu hesian
norbait ikusi dut nik
gelako atarian
nahigabe irristatu
lurzoru zurian
ta lotsatuta nago
gelaren erdian

Etxerako bidean
ez naiz egon adi
txakur bat hurbildu zait
laster gori-gori
atzetikan bizkorra
hozkatu nahi niri
punta batez bestera,
erortzeko zori
horrenbeste bueltekin
egin naiz erori

Etxean katuaren
atzetik segika
kaka egin du eta
eskapo korrika
afarian janariz
ondo bete tripa
gero botaka hasi
gutxika-gutxika
ohean bukatu dut
erabat etsita

Maidar Gabirondo Zelaia

[Aurkibidea](#)



www.altsasukokima.com

Haur hegalaria

Doinua: *Potajiarenak*

Notizia bitxia
Gaur egunkarian
Ohizko albistegitik
Gaur ezustekoan
harrapatu nauela
gaur ni bulegoan
irakurtzen hasi ta
gelditu harriduran
baina noski gero nik
jarraitu lanean

Arruazun jaio da gaur
haur hegalaria
hego bana aldeetan
dela harrigarria
hala ere nik uste dut
haur maitagarria
eta noski zertxobait
da ikusgarria
osasunez ondo da
berri pozgarria

Zer egingo den orain
inork ez dakiela
behar bada zirkura
eramango dutela
baina amak dionez
legezkoa ez dela
ta beraz biziko da
besteen antzera
nolatan eta nondik
da euren galdera

Oihana Kintana Igoa

[Aurkibidea](#)



www.altsasukokima.com

Ohean nago ni

Ni etxera nindoan
lanak egitera
baina bideberrian
egakan atera
kotxeak harrapatu
ta bota lurrera
anbulantzia sartu
ta hospitalera

Anbulantziako neskak
neri esan zidala
ia bizkarrezurra
autsita nuela
egun eta asteak
pasako direla
ni berriz ere ongi
ibiliko naizela

Hil hau nago ohean
da hirugarrenkoa
aspertzen naizenean
nik hartzen dut loa
hankak pixkat mugitu
sendatzen banoa
kalera irteteko
nik daukat gogoia

Jon Igoa

[Aurkibidea](#)



www.altsasukokima.com

Asteburua iritsi da, zer egingo dut?

Berandu jaiki ondoren
egunik onena
iritisi egin dela
ta ni urduriena
lagunei deitu eta
orain azkarrena
ta mugikorrarekin
dela oberena
eta politena
ere ederrena
deitzen azkarrena
hau lana da baina
azkenean badut ba
lagunekin plana

Partidura bagaoaz
Iruñan bait dela
Osasunak jolastu
egiten duela
zelaira iritsita
sartzeko txartela
erosi ondoren ba
eman diodala
bertan gaudela
iritis da gola
ni txaloz Nagola
bukatu bait dela
gustora pasa eta
ni neu banoala

Iñigo Arratibel Karasatorre

[Aurkibidea](#)



www.altsasukokima.com

Animali berri bat

Doinua: *Betroiarena*

Oso aspertuta nago
ni gaur egongelan
gaur hementxe nabil ni
bakarrik etxean.
Gainera ez dago ezer
nire aldizkarian
ea zerbait dagoen
gaurko egunkarian
ta nire herrian
hain zuzen mendian
jendean artean
bizitzeko nahian
animali berri bat
dagoela munduan.

Hori irakurtzen
egin naiz harritu
korrikan berokia
egin dudala hartu
ta oraintxe bertan
mendirra abiatu
eta animalia
ikusi dut gertu
harritu egin gaitu
ta hark oihukatu
orduan saltatu
ta denak izutu
behiaren antza dauka
ta hiru begi ditu.

Nire herriko mendia
da bere etxea
goizero joaten dela
jana bilatzera
ta animaliekin
ondo pasatzea
beti gustatzen zaio
asko oihukatzea
eta saltatzea
baina ez garbitzea
ezta aspertzea
ta herrira etortzea
eta gustatzen zaio
asko dantzatzea.

Sabine Arakama Goikoetxea

[Aurkibidea](#)

Kantak

Telefonotik deitu
Behar nuenean
Soinua hasi zan
Tresna bapatean
Frontoiera joateko
Loinazko bidean
Neska guztiak gero
Egonene lanean
Espero dut egotea
Denak frontoiean

Gelatik ez botazea
Da gure eskaria
Bidali egin digute
Hau bai uskeria
Kanporatzea izan
Gure oparia
Unaien kulpa da ta
Ori azeria
Ez daukagu nora joan
Azer komeria

Frontoietik herrira
Gu goaz kantatzen
Udaleko jendea
Saiatzen bilatze
Hau ensaiatzeko
Jexuxi kontatzen
Ez dugula lekurik
Asteko asmatzen
Orain Jexuxen esker
Gaude ondo kantatzen

Nahia Urkia Ihabar

[Aurkibidea](#)



www.altsasukokima.com

Asteburuan Zer?

Doinua: *Bizkaiko Txerriarena.*

Asteburuko atepak
zabaldutak arren,
ostirala badela
ez dakit pentsatzen,
oraindik erabaki
ez banaiz kokatzen,
kotxean eramango
nautela txoratzen,
ez dakit baina nora
eramaten nauten.

Kotxean banintzela
egin dut ulertu,
preso sentitzen nintzen
zinturoia hozkatu,
amonaren etxera
aspertu, txintxatu,
iristera geundela
egin dut azertu,
lehengusu ta arreba
denekin jolastu.

Adineko senide
aspertu jolastez,
amonak txirrina jo
bazkaltzeko esanez,
familiar bazkaltzen
denei poza emanez,
amonaren porruak
mauka-mauka janez,
familiar elkartzea
ez dago gaizki ez!

Oihan Larraza Razkin

[Aurkibidea](#)



www.altsasukokima.com

Eskiatzera joan

Doinua: *Bizkaiko txerriarena.*

Eskiatzera joan
hurrengo astean
nahiago dut han egon
ze egon etxean
herriko denak joan
inor ez kalean
arropak sartu ondoren
jarri ekipajea
kotxean sartu eta
banoa pakean.

Eskiatzera iritsi
eskiak atera
ongi bazkaldu ondoren
banoa parkera
arratsaldean dago
trineoan karrera
parte hartzera joan
erori lurrera
hanka hautsi dut eta
banoa etxera.

Hotelera itzuli
ta arropak hartu
dutxa on bat emanda
egin naizela hoztu
equipajea utzi
eskua makurtu
gaur ez da nire eguna
tonto naiz bihurtu
etxera itzuli behar
ezin eskiatu.

Ander Gabirondo Vazquez

[Aurkibidea](#)



www.altsasukokima.com

Asteburua...

Bordara joan nahia
Baina alferrak gara
Ama joanda bere
Alaba esnatzera
Pereza eduki harren
Banoa bordara
Katea hartu eta
Askatu dut jada
Menditik bera nator
Txakurrak lotzera

Iritsi naiz oraintxe
Katuarengana
Laurek heldu direla
Eskatzera jana
Bakoitzari eman diot
Pate puska bana
Asetu dira eta
Egin dute esana
Horrela bizi dira
Printze eta dama

Ederki pasatzeko
Banoa kanpora
Iritsi naizenean
Lagunen etxera
Egin didate denek
Kriston etorrera
Etorri garela gu
Bertan kantatzera
Asko hitz egin eta
Farrak botatzera.

Ariane Insausti Amiano

[Aurkibidea](#)



www.altsasukokima.com

Ezinezkoak

Etxean nago eta
egunkaria hartu
sofatik salto batez
egin naiz altxatu
pentsatu dut mundu honek
bai mugarik ez du
mundu honekin zerbait
egin behar dugu
ikusi dudak nik
egin nau harritu.

Irakurtzen jarraitu
ta daukat nik beldur
Iruinekoak daude
benetan zur ta lur
kalean zegoen ta
dinosaurio hezur
ondoren ohartu naiz
zuela txerri mutur
ihesi joan dira
txerria ta txakur.

Operazio baten
arazo latza
elkartu nahi zituzten
txerri ta ardi latxa
gaizki atera zaie
zen ta oso gaitza
bueno nahikoa ikusi dut
jan dut kafe beltza
ohera joan naiz ta
egin dut ametsa.

Oihan Razkin Azpioroz

[Aurkibidea](#)



www.altsasukokima.com

Zoritzarreko eguna

Eskailerak jeisten gaur
Izan naiz azkarra
Bapatean entzun dut
Kristoren marmarra
Nahi gabe pasiloan
Atera zait farra
Amak gainean jarri
Bere hatzaparra
Ondoren berarekin
Izan dut liskarra

Negarrez hasi eta
Bota hainbat malko
Amak esan dit berriz
Ez didala joko
Gero berarengana
Esan dit joateko
Orduan eskatu dit
Arren barkatzeko
Ondoren ia-ia
Autobusa_eskapo

Iritis naizenean
Lagun bat topatu
Aspaldi ikusi gabe
Ta hantxe gelditu
Denbora pasa eta
Neri berandutu
Korrika eskailerak
Igo ta_aztapatu
Atea zabaldu ta
Inork ezagutu

Kattalin Armendaritz

[Aurkibidea](#)



www.altsasukokima.com

Nire Ametsa

Doinua: *Batetikan Korroska*

Abeslari izatera
niri zait gutatzen
entzutean etxean
dira dibertitzen
lapikoen artean
gelan ta dutxatzen
zaratak aterata
dut ni esaiatzen
ausartuko ote naiz
koskioan kantatzen

"Operacion triunfo"
emandako epen
izena eman dut ta
izan dut nik suerte.
Ahots txarra dudala
dabiltza esaten
froga egin ondoren
ni gelditu azken
jarraitu beharko dut
berriz ere amesten

Josseline Catillo Fuentes

[Aurkibidea](#)



www.altsasukokima.com

Zoritxarra

Doinua: *Pasaiaiko plazatik*

Gogo asko ditut nik
ibiltzeko kantan
nabari duelako
gaudela festetan
horretarako onena
ibili kaletan
festetara joango naiz
aste buru hontan

Festa egun hau dela
benetan zakarra
medikura joan eta
berrogei sukarra
esan didate jada
daukat zerbait txarra
operatzera noa
hau bai zoritxarra

Orain medikua da
hau bai dela lata
bosta aldiz etorri da
hori gutxi jota
ondo sentitu gabe
bildu dut zapata
gaixorik egon eta
neri eman alta

Udane Agirre Jaka

[Aurkibidea](#)



www.altsasukokima.com

Eskiatzera joan naiz

Kandantxura banoa
arrutz eskatzera
eta bertan nagola
elurra ikustera
jntentzio batekin
ondo pasatzera
eta lagun berriak
kanpoan egitera
gainera ez garela
joaten lanela.

Ikastaroa egitea
da beharrezkoa
eskiatzen jakiteko
ezinbestekoa
eskian anakak jarri
bastoian besoa
eta geldia izanik
ni azkenekoa
baina ez dut galduko
daukadan gogo.

Ikastaroan ikasi
takoia demostratu
denbora libre honetan
oso ondo pasatu
lurrera botatzen ta
ipurdia berotu
bakoitzak besteari
hezurak apurtu
azkenean oporrak
zaizkigu bukatu .

Kimetz Garde

[Aurkibidea](#)



www.altsasukokima.com

Azterketak iritsi dira ta

Doinua: *Frantzes eukaldun bat*

Iadanik iritsi da eguna
azterketen urduritasuna
gaur daukagu mate azterketa
ta bihar beste bina
hau da hau aste zikina
iritsi da bigarrena
azterketaren ordua ikusteko
ikasi duguna

Hurrengo astean beste
egumak ditut azterketaz bete
hau da hau extresa ta nekea
ezin etxetik plaza arte
besoak mahaian apoiatute
exerlekuben exerite
ta mahaia argituta dago
ta ni hemen akomodatute

Ikastolan pasatzen orduak
ta etxean ikazketak
beti buruan dauzkatelako
egoten naiz asarraka
ta gainera ama garraxika
lo gutxi egitean gero nekatuak
ta gainera oso urduriak egoten gara
horrela dira azterketak.

Irati Pellejero

[Aurkibidea](#)



www.altsasukokima.com

Nombre de archivo: B maila-parte-hartzaileak eta lanak
Directorio: C:\Alfredo\Euskara taldeko kontuak\Bertsolaritzarekin
lotutakoak\Joxe Iriarte Bertso paper lehiaketa\2008ko bertso paper
lehiaketa\web orrirako prestatuta
Plantilla: C:\Documents and Settings\Administrador\Datos de
programa\Microsoft\Plantillas\Normal.dot
Título: B maila
Asunto:
Autor: Compaq
Palabras clave:
Comentarios:
Fecha de creación: 20/05/2008 21:20:00
Cambio número: 53
Guardado el: 30/05/2008 21:52:00
Guardado por: Compaq
Tiempo de edición: 63 minutos
Impreso el: 30/05/2008 21:52:00
Última impresión completa
Número de páginas: 38
Número de palabras: 4.445 (aprox.)
Número de caracteres: 26.139 (aprox.)